



## HAURDUNALDIAN EDO EDOSKITZE NATURALEAN ARRISKUA IZATEARI BURUZKO ZIURTAGIRI MEDIKOAREN ESKAERA

Izapide hori Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoa bidez (<https://sede.seg-social.gob.es>) eska dezakezu, ziurtagiri digitalarekin edota Cl@ve iraunkorarekin. Identifikazio elektronikorako sistematik ez baduzu, izapidea <https://run.gob.es/tramites> helbidean egin ahal izango duzu, edo sinatutako ale bat aurkeztu ahal izango duzu posta arrunta erabiliz. Presentzialki ere egin ahal izango duzu izapidea, Gizarte Segurantzaren Arreta- eta Informazio-zentro batera joanda, 901 10 65 70 / 91 541 25 30 telefono-zenbakietan edo <https://run.gob.es/trdcita> helbidean aurretiko hitzordua eskatu ondoren.

### 1. DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak				NAN - AIZ - Pasaporte:				
Ohiko helbidea: (kalea, plaza, ...)			Zenbakia	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea	Posta-kodea
Udalerria		Probintzia			Gizarte Segurantzako zenbakia			
Telefono mugikorra	Telefono finkoa	Posta elektronikoa						
<input type="checkbox"/> Bere konturako langilea				<input type="checkbox"/> Besteren konturako langilea				

### 2. ENPRESAREN DATUAK (Besteren konturako langileen kasuan bakarrik)

Izena edo sozietate-izena				Kotizazio Kontuaren Kodea (KKK)				
Ohiko helbidea: (kalea, plaza, ...)			Zenbakia	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea	Posta-kodea
Udalerria		Probintzia			Harremanetarako telefonoa			

### 3. BABESTUTAKO EGOERAREN DATUAK

**HAU ESKATZEN DU:** arriskuari buruzko nahitaezko ziurtagiri medikoa, Gizarte Segurantzako Institutu Nasionaleko mediku-zerbitzuek emandakoa, lanpostuko baldintzek haren eta/edo fetuaren, semearen edo alabaren osasunean eragin kaltegarria izan dezaketela ziurtatzen duena, hau dagoelako:

- Arriskua haurdunaldian  
 Arriskua edoskitzaro naturalean

**HAU ADIERAZTEN DU:** bere erantzukizunpean, eskaera honetan ematen dituen datuak egiazkoak direla.

....., 20 ..... (e)ko ..... aren ..... a

Sinadura,

**Ohar garrantzitsua:** Eskatzen duzun ziurtagiri medikoak, horrela badagokio, lanpostuz aldatzeko beharra justifikatuko du. Legez aurreikusitako arrazoiengatik aldaketa hori gertatzen ez bada, geroago eskuratu ahal izango duzu haurdunaldiko edo edoskitzaro naturaleko arriskuaren prestazioa.

Erakunde kudeatzaileak arriskurik ez dagoela uste badu, aurreko paragrafoko mediku-agiri hori ez ematea erabakiko du, eta langileari jakinaraziko dio ezin dela prestazio hori lortzeko bidea abiarazi (martxoaren 6ko 295/2009 Errege Dekretuaren 39. artikulua. Martxoaren 21eko BOE).



**KASU BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- HAURDUNALDIA:** Osasun Zerbitzu Publiko medikuaren txostena. Txosten horrek haurdun-egoera eta aurreikusitako erditze-data egiaztatuko ditu.
- EDOSKITZE NATURALA:** Osasun Zerbitzu Publiko medikuaren txostena, edoskitze naturala egiaztatzen duena.
- BI ARRISKUETAN:**
- » Besteren konturako langilea: Enpresaren adierazpena, arrisku-egoerari buruzkoa (C-037 eredua, [www.seg-social.es](http://www.seg-social.es) webgunean aurki daiteke), hau ere jasotzen duena: egiten den jarduera eta lanpostuko baldintzak. Horrekin batera, halakorik badago, enpresako prebentzio-zerbitzuaren txostena, lanpostuko arriskuari buruzkoa.  
Etxeko Laneko Sistema Bereziko langileen kasuan, etxeko arduradunak emango du adierazpena.
  - » Bere konturako langilea: Bere konturako langilearen adierazpena, arrisku-egoerari buruzkoa (C-058 eredua, [www.seg-social.es](http://www.seg-social.es) webgunean aurki daiteke), eta hau ere adierazten duena: zein den egiten duen jarduera eta bere egoerarekin bateragarria den jarduerarik ez dagoela.
- Langile autonomoak kooperatibetan, lan-sozietateetan edo merkataritzako sozietateetan egiten baditu zerbitzuak, sozietatearen administratzaileak egin beharko du adierazpen hori. Mendekotasun ekonomikoa duen langile autonomoa bada, aipatutako adierazpena bere bezeroak egin beharko du.

Eskabide hau bitarteko informatikoen bidez izapidetuko da. Bertan agertzen diren datu pertsonalak 1994-3-27ko Aginduak (29ko BOE) sortutako fitxategi batean sartuko dira, aitortzen zaizun prestazioa kalkulatu eta kontrolatu ahal izateko; datuak Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Orokorraren babespean egongo dira. Nahi duzunean baliatu ahal izango dituzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezeztatzeko eskubideak, baita horien aurka egiteko eskubidea ere, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Probintzian (Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikulua. 14ko BOE).